



## ENTITATE PUBLIKOETAKO LANGILEEN ZIURTAGIRIRAKO BERARIAZKO DOKUMENTAZIOA

Erreferentzia: IZENPE-Doc. Certificado PEP.

Bertsioaren zenbakia: 4.1

Data 2007ko urriaren 16a

---

© IZENPE 2007

Dokumentu hau IZENPErena da, kopiarik egitekotan, osorik kopiatu daiteke soilik.



# 1 Sarrera

---

Dokumentu honek Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SAK (aurrerantzean, IZENPE) jaulkitako *Entitate Publikoetako langileen ziurtagirirako berariazko dokumentazioa* biltzen du.

Dokumentu honen helburua da IZENPEren Ziurtapen Praktiken Deklarazioan mota horretako ziurtagirietarako definitutakoa zehaztu eta osatzea.

*Dokumentazio* honek zehazki arautzen du *Ziurtapen Praktiken Deklarazioa* dokumentuak *Entitateko Publikoetako langileen ziurtagirirako berariazko dokumentazioa* deritzon dokumentu honi bidalitakoa.

## 1.1 Aurkezpena

Ziurtapen Digitalaren Zerbitzuaren esparruan jaulkitzen du Izenpe, SAK Entitate Publikoetako langileen ziurtagiria. Zerbitzu horren bidez lortzen dituzte zerbitzuaren erabiltzaile diren entitateek ziurtagiri digitalak.

### 1.1.1 Ziurtagiriaren deskribapena

Ziurtagiri horretan entitate publikoetan karguak edo lanpostuak betetzen dituzten eta administrazio-ahalmenik ez duten pertsonak identifikatzen dira.

Ziurtagiri hori txartel kriptografikoan jaulkitzen da. Ziurtagiri horretan pertsona horren entitate publikoa eta, hala badagokio, betetzen den kargua identifikatuko da.

Entitate publikoetarako lan egiten duten langileek bi ziurtagiri jaso ditzakete:

- Sinadura elektronikoaren ziurtagiria. Izatez, sinadura elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen 8., 11., 12., 13., 18. eta 20. artikuluetan ezartzen denaren arabera legez onartzen den ziurtagiria da.
- Zifratze-ziurtagiria, zifratze-erabileretarako. Ziurtagiri hori ez da legez onartutako ziurtagiri gisa hartzen.

## 1.2 Identifikazioa

Entitate publikoetako langileen ziurtagiria identifikatzeko, IZENPEk honako objektu-identifikatzailea (OID) esleitu dio.

<b>ZIURTAGIRIA</b>	<b>OID</b>
--------------------	------------



Entitate publikoetako langileen ziurtagiria	1.3.6.1.4.1.14777.4.1
---	-----------------------

Aitortu bezala jaulkitzen diren ziurtagiriek honako objektu-identifikatzaile (OID) hau izaten dute gehigarri gisara, Telekomunikazioko Arauen Europako Institutuak TS 101 862ren bidez ziurtagiri aitortuen profilei buruz zehaztutakoarekin bat etorriz: 0.4.0.1862.1.1.

## 1.3 Komunitatea eta aplikagarritasuna

### 1.3.1 Ziurtagirien erabiltzaileak

Entitate publikoetako langileen ziurtagirien erabiltzaile diren azken entitateak ziurtagiri digitalak jaulki, kudeatu eta erabiltzeko zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona eta erakundeak dira.

Honako entitate hauek izango dira entitate erabiltzaileen ziurtapen-sistemaren azken entitateak:

1. Ziurtagirien eskatzaileak
2. Ziurtagiriaren sinatzailea
3. Ziurtagirien harpidedunak
4. Gakoen edukitzaileak
5. Ziurtagirietan konfiantza duten hirugarrenak

#### 1.3.1.1 Ziurtagirien eskatzaileak

Entitate publikoetako langileen ziurtagiria pertsona batek eskatu behar du, bere izenean edo erakunderen batenean.

Hauek izan daitezke eskatzaile:

1. Ziurtagiriaren harpidedun izan behar duena
2. Harpidedun izan behar duenak baimendutako norbait
3. Erregistro-entitateak baimendutako norbait
4. Ziurtapen-zerbitzuen egileak baimendutako pertsona bat



### **1.3.1.2 Sinatzailea**

Ziurtagirian identifikatzen den pertsona fisikoa izango da sinatzailea.

### **1.3.1.3 Ziurtagirien harpidedunak**

Ziurtagirian identifikatzen den pertsona juridikoa izango da harpideduna.

### **1.3.1.4 Gakoen edukitzaileak**

Gakoen edukitzaileak sinadura digitaleko gakoak dituzten eta horiek zaintzeaz arduratzen diren pertsona fisikoak izango dira.

Sinatzailea izango da gakoen edukitzailea.

## **1.3.2 Zeri aplikatu**

### **1.3.2.1 Ziurtagirien erabilera-esparrua**

Entitate publikoetako langileen ziurtagiriak” administrazio-organoaren eta betetzen den karguaren edo lanpostuaren berezko eskumenen barruan erabiliko dira.

Edonola ere, gakoen edukitzaileek beste erabilera batzuetarako erabili ahal izango dituzte ziurtagiri horiek, betiere erakunde pribatuekin harpidetutako hitzarmenek edo kontratuek, edo erakunde horiek erreferentziazko ziurtagirien erabilera onartzen duten tresnek adierazten dituzten erabiltzeko mugak errespetatzen badira –nolanahi ere, zerbitzu publikoekin lotutako esparruak izango dira–.



## **2 Xedapen orokorrak**

---

### **2.1 Identifikazio-betebeharrak**

Izenpe, SAK –berez edo berarekin hitzarmenak izenpetu dituzten Entitate Publiko Erabiltzaileen bidez– egiaztatzen ditu dagozkien erregistroetan, eskatzaileen, harpidedunen eta ziurtagirien gakoan edukitzaileen nortasuna eta beste zeinahi datu pertsonal, ziurtagirien xedeetarako garrantzizko izan daitezkeenak betiere.

Era berean, gakoan edukitzailea harpidedunak behar bezala baimenduta dagoela egiaztatzen du.

### **2.2 Ziurtagiri-harpidedunaren erantzukizun zibila**

Harpidedunaren berezko betebeharrei dagokienez, harpidedunak zein gakoan edukitzaileak daukate ziurtagiria ezeztatzeko eskaera egiteko erantzukizuna, betiere Ziurtagiri Praktiken Deklarazioak aurreikusten duenaren arabera.



## 3 Identifikazioa eta kautotzea

---

### 3.1 Hasierako erregistroa

#### 3.1.1 Izen motak

Subject Name eremuko izen bereizgarriak Common Name (CN) osagai bat izaten du.

##### 3.1.1.1 Subject (2003ko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen 11.2. artikuluko e) letraren baldintza)

Entitate publikoetako langileen ziurtagiriko subject eremuan izen bereizgarria osatzen duten atributuak ziurtagiriaren profilari dagokion atalean bildutakoak dira.

#### 3.1.2 Izenen esanahia

Ez da goitizenerik erabili behar.

Pertsona juridiko batek harpidetutako entitate publikoetako langileen ziurtagirietan, edukitzailearen izen-abizenek eta NANaren, pasaportearen edo AIZren zenbakiak osatzen dute harpidedunaren izena.

#### 3.1.3 Izenen gaineko auziak konpontzea

Entitate publikoetako langileen ziurtagirietan, honela konpontzen dira benetako izenaz identifikatuta ageri diren gakoan edukitzaileen izenen gaineko auziak: harpidedunaren IFZren zenbakia (edo harpidedunak esleitutako beste identifikatzailearen bat) jartzen da ziurtagiriaren izen bereizgarrian, betiere aurreko atalak ezartzen duenaren arabera.

#### 3.1.4 Pertsona fisiko baten nortasuna kautotzea

##### 3.1.4.1 Identifikazio-subjektuak

Entitate Publikoetako langileen ziurtagirien kasuan, ez da beharrezkoa izango datuak egiaztatzea, baldin eta Entitate Publiko harpidedunak bere gain hartzen badu sinadura sortzeko (gako pribatua) eta sinadura egiaztatzeko (gako publikoa) prozedura teknikoak gakoan edukitzailearen esku jartzeko funtzioa. Harpideduna den Entitate Publiko erabiltzaileak funtzio horiek bere gain hartzen ez dituenean, Erregistro Entitatearen aurrean egiaztatu beharko ditu ziurtagirietako datuak. Haatik, ziurtagirietan identifikatzen diren gakoan edukitzaileen bertaratze bidezko identifikazioa Entitate Publiko erabiltzaileak egin beharko du, betiere ziurtagirietan jasoarazten diren zirkunstantziak egiaztatzen dituen dokumentazioa identifikatzeko eta egiaztatzeko funtzioen barruan.



### 3.1.4.2 Aurkeztu behar diren identifikazio-elementuak

Eskatzaileen nortasuna egiaztatzeko, honako dokumentazioa eskatuko da:

- a. NANA edo pasaporte, estatuko herritarra bada.
- b. Atzerriko herritarra bada:
  - I. Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomiko Estatuetakoa herritarren kasuan, Atzerritarren Nortasun Zenbakia eta bere nortasuna egiaztatzeko indarrean dagoen nortasun-agiria erabiliko da.
  - II. Europar Batasunekoak ez diren atzerritarren kasuan, egoitza-txartela eskatu ahal izango da.

### 3.1.4.3 Identifikazio-elementuak egiaztatzea

Erregistro Entitateak egiaztatu egin behar du aurreko atalean aipatutako dokumentazioa, eta idatzizko dokumentuen bidez adierazi beharko du egiaztapena egin dela.

Zehazki, aurreko atalean aipatutako nahitaez inskribatzeko ahalordeen iritsierari eta indarraldiari buruzko datuak egiaztatzeko, berriz, bidezko kontsultak egingo dira Erregistro Publikoetan.

### 3.1.4.4 Norberak noiz aurkeztu behar duen

Eskatzailearen identifikazioa eta egiaztapena egiteko, pertsona horrek Erregistro Entitatean bertaratu beharko du, eta idatziz jaso beharko da horren berri.

Ez du zertan bertaratu, baldin eta ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren sinadura:

- notarioaren aurrean legeztatu bada
- edo sinadura elektronikoari buruzko Legearen 13.4. artikuluan aintzat hartzen diren kasuetako bat bada. Dena den, gerta daiteke jaulkitze-prozeduran eskatzailea bera bertaratzea eskatu ahal izatea jaulkitze-prozeduran kautotzeaz bestelako ondorioetarako –ziurtagiriaren emate segurua bermatzeko esate baterako–.

## 3.2 Ezeztatzeko, eteteko edo berraktibatze eskaera kautotzea

### 3.2.1 Ezeztatzeko eskaera

Ziurtagiria ezeztatu nahi duenak erregistro-entitate batera joan eta:



- bere burua identifikatu behar du, pertsona fisikoen identitatea kautotzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztuz (ikus 3.1.9.2. atala).
- horrez gain, justifikatu egin behar du ezeztatzeko eskaera, ziurtagiriaren baliogabetzea eragiten duen zergatia justifikatzeko behar den dokumentua aurkeztuz, hala behar izanez gero.

IZENPEko administratzaileek eta erregistro-entitateek baimena dute azken entitateko harpidedun-ziurtagirien ezeztapena eskatzeko.

Sarbide-kontrolaren bidez kautotzen da administratzaileen nortasuna, SSLa eta bezero-kautotzea erabiliz, ezeztatzeko edo eteteko jarduerak baimendu aurretik.

### **3.2.2 Eteteko eskaera**

Telefonoz eskatu ahal izango du etetea harpidedunak. Horretarako, bere burua identifikatuko du, eta telefono bidezko identifikaziorako pasahitza emango du, edo eskatzaile behar bezala identifikatzeko IZENPEk eskatzen dituen datuak emango ditu.

### **3.2.3 Berraktibatzeko eskaera**

Berraktibatzeko eskaeraren kasuan, harpidedunak izan behar du eskatzailea, edo, hala badagokio, aurretik ziurtagiria eteteko eskaera egin duen gakoan edukitzaileak.

Erregistro-entitate baten aurrean bertaratu eta bere burua identifikatu beharko du, pertsona fisikoen nortasuna kautotzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztuz (ikus 3.1.9.2. atala).



## 4 Eskakizun operatiboak

---

### 4.1 Ziurtagiria eskatzea

Entitate publikoek haien antolamenduan karguak edo postuak betetzen dituzten pertsona fisikoentzako [eskaera-formularioak](#) bete beharko dituzte, betiere egoki deritzen pertsonentzako.

Administrazio bakoitzak zehaztu duen erregistro-entitateari eman beharko zaizkio eskaera horiek:

- I. Administrazio eskatzailearen antolamenduan bertan dagoen erregistro-entitateari.
- II. IZENPERi, Administrazio eskatzaileak erregistro-entitaterik ez duenean.

Administrazio eskatzailea izango da ziurtagiriaren harpideduna, eta Administrazio horretan kargua edo postua betetzen duen pertsona fisikoa izango da gakoan edukitzailea. Ziurtagirian jasoarazi beharko da pertsona horren nortasuna eta lanpostua edo kargua, baldin eta datu horiek ziurtagirian jaso daitezzen nahi badu.

#### 4.1.1 Eskatzailearen nortasuna egiaztatzea

Gakoan edukitzaileak haren nortasuna egiaztatu beharko du erregistro-entitatearen funtzioak betetzen dituen Administrazio publiko erabiltzailearen aurrean. Ondoren, honakoan aurrean bertaratu beharko du:

- I. Entitate Publiko erabiltzailearen aurrean, baldin eta erregistro-entitate bihurtzen bada (sinadura sortzeko –gako pribatua– eta sinadura egiaztatzeko –gako publikoa– prozedura teknikoak gakoan edukitzailearen esku jartzeko funtzioak bere gain hartzen dituen entitatea).

Ez da beharrezkoa izango gakoan edukitzailearen nortasunaren eta izaeraren dokumentu bidezko justifikazioa lortzea, erregistro-entitatea, harpideduna eta gakoan edukitzailea antolakunde bereko kide diren aldetik.

- II. Entitate publiko erabiltzailea erregistro-entitate bihurtzen ez bada, gakoan edukitzaileak IZENPERen aurrean honako alderdiak egiaztatu beharko ditu ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren bidez:



- Nortasuna.
- Administrazio eskatzailearekiko atxikipena.
- Betetako karguaren edo postuaren justifikazioa.

IZENPEk egiaztatze hori jasoaraziko du.

Nolanahi ere, honako agirietako datuek identifikatuko dute gakoan edukitzailea ziurtagirian:

- a. NAN edo pasaporte, estatuko herritarra bada.
- b. Atzerriko herritarra bada:
  - Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomiko Estatuetakoko herritarren kasuan, Atzeritarren Nortasun Zenbakia eta bere nortasuna egiaztatze indarrean dagoen nortasun-agiria erabiliko da.
  - Europar Batasunekoak ez diren atzeritarren kasuan, egoitza-txartela eskatu ahal izango da.

## 4.2 Ziurtagiria jaulkitzea

Erregistro-entitatean eskatzailearen nortasuna egiaztatu ostean, ziurtagiria jaulkitzeko eskaera sinatu beharko du, eta, horrela, IZENPEk ziurtagiria jaulkiko du.

## 4.3 Ziurtagiria ematea

Erregistro-entitateak ziurtagiria emango du, eta eskatzaileak honako aukerak izango ditu:

1. Ziurtagiria jaulkitzen den unean bertan, ziurtagiriaren gakoan edukitzaileari emango zaio PINa, PUKa (PINa desblokeatzeko kodea) eta telefono bidez identifikatzeko pasahitza adieraziko duen orria; eta ziurtagiria [erabiltzeko baldintzen](#) berri emango zaio. Une horretan, eskatzaileak [Entrega eta Onarpen Orria](#) sinatu beharko du.
2. Posta bidez jasotzea;
  - a. ziurtagiria, ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran eskatzaileak finkatutako posta-helbidean.
  - b. PINa, PUKa (PINa desblokeatzeko kodea) eta telefono bidez identifikatzeko pasahitza adieraziko duen orria. Bestalde, [ziurtagiria erabiltzeko baldintzen](#) berri emango da gakoan edukitzaileak ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran adierazitako posta-helbidean.



Eskatzaileak hilabeteko epean igorri beharko dio IZENPERi [Entrega eta Onarpen Orria](#); hala egin ezean, ezeztatu egingo da ziurtagiria.

## 4.4 Ziurtagiriak etetea

Gakoen edukitzaileak edozein unetan –eta ziurtagiria galdu zaion edo lapurtu dioten guztietan– eskatu ahal izango du ziurtagiria etetea. Identifikatzeko honako datuak eman beharko ditu:

- Telefono bidez identifikatzeko pasahitza.
- Posta elektronikoko helbidea.

### 4.4.1 Ziurtagiria etetea eskatzen duen entitatea

Honakoek eten ahal izango dute ziurtagiria:

- Gakoen edukitzaileak.
- Erregistro-entitateak.

### 4.4.2 Gehieneko etenaren epea

Ziurtagiria gehienez hamabost egunez izango da etenik, ziurtagiriaren harpidedunak etetea eskatu duen egunetik kontaktzen hasita.

Epe horretan, harpidedunak ziurtagiria berraktibatzea berretsi egin behar du, horretarako aurreikusitako baldintzei jarraituz.

Epe hori igaro bada, eta harpidedunak berraktibatzea berretsi ez badu, ziurtagiria ezeztatu egingo da.

## 4.5 Ziurtagiriak ezeztatzea

Ziurtagiria ezeztatzeke eskatu nahi duenak erregistro-entitatearen bulegoetakoren batera hurbildu beharko du. Bertan, bere nortasuna ziurtatuko duen dokumentuaren bidez (ikus 4.1.1. atala) bere burua identifikatu ostean, ziurtagiria [ezeztatzeke eskaera](#) bete beharko du. Horretarako, beharrezkoa balitz, ezeztatzeke arrazoia egiaztatzen duen agiria entregatu beharko luke.

Ziurtapen Praktiken Deklarazioko dokumentuan kontsulta daitezke zein diren ezeztatzeke arrazoiak eta nork eska dezakeen ezeztatzea.



## 4.6 Berraktibatzea

Ziurtagiriaren harpidedunak hamabost eguneko epea izango du ziurtagiriak berraktiba daitezen eskatzeko, ziurtagiria eteteko eskaera egiten denetik hasita. Epe hori igaro ondoren ziurtagiria ezeztatu egin dela ulertuko da.

Harpidedunak erregistro-entitateetako batera hurbildu beharko du ziurtagiria berriz aktiba dadin eskatzeko. Bertan, bere nortasuna ziurtatuko duen dokumentuaren bidez (ikus 4.1.1. atala) bere burua identifikatu ostean, [berraktibatzeako eskaera](#) entregatu beharko du, behar bezala beteta.

## 4.7 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria berritzeko, bai ezeztatu delako, bai indarraldia amaitu delako, eskatzaileak beste ziurtagiri bat eskatu beharko du. Horretarako, ziurtagiriak jaulkitzeko ezarritako prozesuari jarraituko zaio.



## 5 Ziurtagirien profilak eta ezeztatutako ziurtagirien zerrendaren profilak

Aurreikusten diren erabilerak: sinadura, ssl bezeroa, s/mime, scl, vpn, zifratzea (gakoak berreskuratu gabe).

Eremua	Edukia
1. X.509v1 Field	
1.1. Bertsioa	v3
1.2. Serial Number	CA jaulkitzaileak automatikoki esleitutakoa
1.3. Signature Algorithm	SHA-1 RSA sinadurarekin
1.4. Signature Value	Sinadura kodetua bit-katearekin
1.5. Issuer Distinguished Name	
1.5.1. Country (C)	Espainia
1.5.2. Locality	Mediterraneoaren hiribidea, 3 – 01010, Vitoria-Gasteiz
1.5.3. Organization (O)	IZENPE SA - IFK A-01337260 – RMerc. Vitoria-Gasteiz T1055 F62 S8
1.5.4. Organizational Unit (OU)	IZZ Ziurtagiri Publikoa
1.5.5. Common Name (CN)	EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas
1.5.6. EmailAddress	<a href="mailto:info@izenpe.com">info@izenpe.com</a>
1.6. Validity	
1.6.1. Not Before	Ziurtagiriaren iraunaldiaren hasiera-data
1.6.2. Not After	Ziurtagiriaren iraunaldiaren amaiera-data



Eremua	Edukia
1.7. Subject	
1.7.1. Country (C)	"ES"
1.7.2. Organization (O)	Harpidedunaren erakundearen izen osoa
1.7.3. Organizational Unit (OU)	Barne-multzoa (vpn)
1.7.4. Organizational Unit (OU)	Kargua edo/eta saila
1.7.5. Organizational Unit (OU)	Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido
1.7.6. Organizational Unit (OU)	Entitate publikoen ziurtagiria - Certificado de entidad publica
1.7.7. Organizational Unit (OU)	Condiciones de uso en www.izenpe.com nola erabili jakiteko
1.7.8. DnQualifier	IFZ, AIZ (*) + OTI (aukeran). (* formatua: -nan nnnnnnnnL edo -aiz Xnnnnnnnn -OTI nnnnnnnn
1.7.9. Common Name (CN)	Gakoen edukitzailearen izen-abizenak
1.7.10. GivenName	Gakoen edukitzailearen izena
1.7.11. Surname	Gakoen edukitzailearen abizenak
1.7.12. SerialNumber	Pertsona fisikoa den harpidedunaren edo gakoen edukitzailearen IFZ, AIZ (*)
1.8. Subject Public Key Info	1024-Bit gako publikoa, RFC2459 & PKCS#1ren arabera kodetua.
2. X.509v3 Extensions	
2.1. Authority key Identifier	
2.1.1. Key Identifier	Jaulkitzailearen gako publikoaren identifikatzailea.
2.1.2. AuthorityCertIssuer	keyIdentifier-en identifikatutako gakoari dagokion CAren izena



Eremua	Edukia
2.1.3. AuthorityCertSerialNumber	CAren ziurtagiriaren serie-zenbakia
2.2. Subject Key Identifier	
2.2.1. Key Identifier	Gakoan edukitzailearen gako publikoaren identifikatzailea
2.3. Key Usage	
2.3.1. Digital Signature	Hautatua "1"
2.3.2. Non Repudiation	Ez-hautatua "0"
2.3.3. Key Encipherment	Hautatua "1"
2.3.4. Data Encipherment	Hautatua "1"
2.3.5. Key Agreement	Ez-hautatua "0"
2.3.6. Key Certificate Signature	Ez-hautatua "0"
2.3.7. CRL Signature	Ez-hautatua "0"
2.4. Qualified Certificate Statements	
2.4.1. qCStatement OID	0.4.0.1862.1
2.5. Certificate Policies	
2.5.1. Policy Identifier	1.3.6.1.4.1.14777.4.1
2.5.2. Policy Qualifier ID	
2.5.2.1. CPS Pointer	<a href="http://www.izenpe.com/rpascapersentpub">http://www.izenpe.com/rpascapersentpub</a>
2.5.2.2. User Notice	Bermeen mugak ezagutzeko <a href="http://www.izenpe.com">www.izenpe.com</a> Ziurtagirian konfiantza izan aurretik kontratua irakurri Limitaciones de garantias en <a href="http://www.izenpe.com">www.izenpe.com</a> Consulte el contrato antes de confiar en el certificado
2.6. Subject Alternate Names	



Eremua	Edukia
2.6.1. rfc822Name	<a href="#">Dirección de email</a>
2.6.2. UserPrincipalName	erabiltzaile@jabaria
2.7. Issuer Alternative Name	
2.7.1. dNSName	<a href="http://www.izenpe.com">http://www.izenpe.com</a>
2.8. Extended Key Usage	
2.8.1. emailProtection	1.3.6.1.5.5.7.3.4
2.8.2. clientAuth	1.3.6.1.5.5.7.3.2
2.8.3. Smartcardlogon	1.3.6.1.4.1.311.20.2.2
2.9. cRLDistributionPoint	
2.9.1. distributionPoint	<a href="http://crl.izenpe.com/cgi-bin/crlscar">http://crl.izenpe.com/cgi-bin/crlscar</a>
2.10. NetscapeCertType	SSL client, SMIME client
2.11. Authority Information Access	
2.11.1. Access Description	
2.11.1.1. Access Method	1.3.6.1.5.5.7.1.48.1
2.11.1.2. accessLocation	<a href="http://ocsp.izenpe.com:8094">http://ocsp.izenpe.com:8094</a>